



**Arartekoaren 2017R-1069-16 Ebazpena, 2017ko azaroaren 14koa, otsoa (canis lupus) mehatxatutako espezieen euskal katalogoan sartzeko eskaeraren ingurukoa.**

### Aurrekariak

1.- "*Grupo Lobo de Euskadi/Euskadiko Otso Taldea*" Elkarteak Arartekoari azaldu dio Eusko Jaurlaritzaren orduko Ingurumen eta Lurralde-politika Sailak eskaera bati erantzun ez ziola, hain zuzen ere, eskaera hori 2015eko urtarrilaren 26an aurkeztu zen otsoa (canis lupus) mehatxatutako espezieen euskal katalogoan sartzeko.

Otso Taldea Elkartearen helburuetako bat da Euskadiko Autonomia Erkidegoaren natura kontserbatzea eta ikertzea. Hori dela-eta, elkarteak berriaz eskatu zuen uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuaren 3.2. artikuluan aurreikusitako katalogazio prozedura abiarazteko. Dekretu horren bidez mehatxupean dauden basoko eta itsasoko landare eta animalien espezieen euskal katalogoa arautu zen. Horretarako, txosten bat aurkeztu zuen otsoaren populazioak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoera larriari buruz. Dokumentu horretan, otsoak Euskadin galzorian dagoen espezie izaera izan beharko lukeela justifikatzeko bibliografia eta dokumentazioa atxiki ziren, gaur egungo estatus demografikoa dela-eta.

Era berean, alegatu zuen, eskaera hori, 27 elkartek eta antolakuntzek osatutako talde baten babesarekin, aurretik gauzatu egin zela, zehazki, 2012ko maiatzaren 29an, administrazio-izapiderik lortu gabe.

2.- Elkarteak adierazitakoaren arabera, kontu horren inguruan eskuratutako informazio bakarra Ingurune Natural eta Ingurumen-plangintzako Zuzendaritzaren ofizio bat izan zen, hain zuzen ere, 2015eko otsailaren 19an jaso zena. Bertan, ingurumen-administrazioak soilik jakinarazten zuen, 2014ko erdialdetik, otsoaren errolda egiten ari zela EAEn eta hori egitea beharrezkoa zela espeziearen katalogazioari eta kudeaketa-beharrei buruzko edozein erabaki hartzeko. Erroldaren txostena 2015eko ekainean egin zen. Orduetik hona, elkarteak ez du informaziorik eskuratu eskaerarekin lotutako izapideei dagokienez.





Erantzunik jaso ez zuten eta bigarren eskaera egin zenetik hamabost hilabete baino gehiago igarota, Arartekoarengana jo zuten eskatzeko Eusko Jaurlaritzako ingurumen alorreko sail eskudunak egindako eskaerari erantzuteko.

- 3.- Erreklamazio hau behar bezala izapidetze aldera, 2016ko ekainaren 8an, Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren orduko Ingurumen eta Lurralde-politika Sailari eskatu zion informazioa sail horrek otsoa (*canis lupus*) mehatxatutako espezieen euskal katalogoan sartzeko eskaerari erantzuteko burututako jarduketan inguruan.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde-politika Sailak eskaera horri erantzun zion; horretarako, txosten bat bidali zuen 2016ko ekainaren 27an. Bertan, ordura arte burututako jarduketan berri ematen zuen. Erantzun horretan, sail honek otsoa (*canis lupus*) Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Katalogoan sartzeko eskaerari dagokionez burututako jarduketak azaltzen ziren.

2014ko ekainean, Consultora de Recursos Naturales S.L. Enpresaren kontratazioa onartu zen, honako lana egin zezan: "Otsoaren errolda Euskadin". Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiek kontratatu eta finantzatu dute lan hau eta beste errolda honen parte da: "Otsoaren errolda Espainian 2012-2014 (Canis lupus, Unnaeus, 1758)".

2015eko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde-politika Sailean jaso zen "Grupo Lobo de Euskadi/Euskadiko Otso Taldea" Elkartearen idazki bat; bertan, otsoa (*canis lupus*) Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Katalogoan sartzeko prozedura abiarazteko eskatu zen.

2015eko otsailean, eskaerari erantzun zitzaion honako termino hauetan: *"2014ko erdialdetik, Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiak otsoaren errolda berrikusten ari dira EAEn, beste autonomia-erkidego batzuetan egiten ari diren erroldekin koordinatuz eta lan-metodologia bera erabiliz. Kontuan hartuta azkenengo errolda duela 10 urte egin zela eta, dirudenez, egoera aldatu dela, beharrezkotzat jotzen da errolda eginda egon arte itxarotea (udan bukatzea aurreikusten da), baita horien emaitzak izan arte ere, espeziearen katalogazio-eskaerari eta horren kudeaketa-beharrei dagokienez erabakirik hartu aurretik.*





Halaber, sailak kontuan hartu beharreko zenbait gogoeta helarazten zituen bere txostenean espeziearen katalogazioari buruz: *"Otsoa fauna-espezie basati bat da eta horren bereizgarri bat da abeltzaintza-jarduerarekiko interakzioa. Hain zuzen ere, hori funtsezko alderdi bat da aipatutako espeziearen kudeaketa bideratzerakoan. Horrez gain, garrantzitsua da aztertzea eta balioztatzea beste autonomia-erkidego batzuek otsoaren kudeaketan izandako esperientziak, non espezie hori dagoen eta populazioa altua den, hau da, funtsean, Galizian, Gaztela-Leonen eta Asturiasen. Halaber, kontuan hartu behar da Arabako Lurralde Historikoan Otsoaren (Canis Lupus) Kudeaketa-plan bat dagoela, hain zuzen ere, Arabako Lurralde Historikoan otsoak abeltzaintza estentsiboarekin duen gatazkari aurre egiteko (ekainaren 29ko 33/2010 Dekretua) eta horren funtzionamendua aztertzeke. (...) Horregatik guztiagatik, orain arte, mota horretako erabakiak inplikaturako erakundeen artean adostuz hartu dira, dagozkion txostenak azertu ostean".* Hala, berriz ere nabarmendu behar da abeltzaintza-jarduerarekin interakzioan dagoen espezie bat izanik, garrantzitsua izango dela espezie horren kudeaketa abeltzaintzan eskudunak diren aginteekin adostea, baita sektorearekin ere."

- 4.- Arartekoak aipatutako informazioa helarazi dio kexa jarri duen elkarteari. Elkarreak erakunde honi nabarmendu dio otsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Mehatxatutako Espezieen Katalogoan sartzeko eskaerari erantzutea nahiko lukeela; horrez gain, adierazi du, ingurumen-arloan eskuduna den sailak dagokion izapidea eman behar diola eskaera horri.

Gainera, denbora tarte horretan, legegintzaldia aldatu egin da eta Eusko Jaurlaritzaren osaera aldatu da; hala, horren ostean, 2016ko azaroaren 26tik, hain zuzen ere, kontu hori jorratzeko oraingo sail eskuduna da Ingurumen, Lurralde-politika eta Etxebizitza Saila.

Erreklamazioan azaldutako kontuak azertu ostean eta administrazio horren erantzunari buruzko iritzia eman ondoren, Arartekoak kexa-espeditente honen inguruan egin dituen gogoeten eta atera dituen ondorioen berri eman nahi da.





## Gogoetak

**1.- Otsoa mehatxatutako fauna eta flora espezieen euskal katalogoan sartzeko prozedura.** Erreklamazioaren xede nagusia da Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak, hau da, baliabide naturalak antolatzeko eta natura kontserbatzeko eskuduna den sailak, Grupo Lobo de Euskadi/Euskadiko Otso Taldea Elkarateak egindako eskaera bati erantzun ez diola salatzea; hala, elkarateak eskaera hori aurkeztu zuen otsoa mehatxatutako fauna eta flora espezieen euskal katalogoan sartzeko espediente bat abiarazteko.

Eskaera 2015eko urtarrilean gauzatu zen Eusko Jaurlaritzaren orduko Ingurumen eta Lurralde-politika Sailaren aurrean. Jakinarazpen bat eman zen otsoak Euskal Autonomia Erkidegoan zuen egoeraren inguruan; hala ere, erakunde honi bidalitako informazioaren arabera, orain arte, administrazio horrek ez du aipatutako eskaera ebatzi.

Hala, espediente bat abiarazteko eskaera aurkez daiteke, natura kontserbatzea eta aztertzea xede duten elkarteentzat aurreikusitako ekimenaren barruan. Espedientea abiarazteko eskaerak izapidetzeko eskatzen du, betiere kexagilearen asmoa administrazioari egitate batzuk jakinarazteaz harago badao.

Aurreikusitako prozedura Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartu zuen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikulua ezartzen duena da. *"Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean natura-baliabideen antolamenduan eta naturaren kontserbazioan eskumena duen sailak izango du zerrendan espezie, subespezie eta populazioak sartzeko ardura. Horretarako, aintzat hartuko du Naturzaintza-Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordeak aurretik egingo duen txostena. Hilabete baino lehenago egin beharko da txosten hori".*

Uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuak espezie bat katalogoan sartzeko edo horretatik ateratzeko prozedura arautzen du eta kudeaketa-planak egiteko eta onesteko arauak ezartzen ditu.





Ingurumen, Lurralde-plangintza eta Etxebizitza Saila da eskuduna inguru naturala antolatu eta ikertzeko; horrez gain, katalogazio-prozedura abiarazteko organo eskuduna da. Hala, prozedura ofizioz has daiteke, ondare naturala antolatzeko zuzendaritzak has dezake *"hori egiteko gomendatzen duen informazio tekniko edo zientifikoa balego"* edo foru-organoko eskudunek edo Naturaren Kontserbazioaren Batzorde Aholkulariak eskatuta, betiere informazio teknikoan oinarrituz.

Adierazi beharra dago 3.3 artikulua jasotzen duela herritarren ekimena prozedura elkarrekin hasteko proposatzeko; hala, proposatu da barneko estatutuen artean Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan natura kontserbatzea eta aztertzea helburu duten elkarten bidez hasteko prozedura. Kasu honetan, arauak haxe aurreikusi du: *"Eskabidea aztertutakoan, eta foru organo eskudunek txostena egin ondoren, Natur Ingurunearen Antolamendu eta Ikerketa Zuzendaritzak erabakiko du prozedura hasi behar den ala ez"*.

Ondare Naturala Antolatzeko Zuzendaritzak espedientea hasita erabakitzean, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordea-Naturzaintzari bidali beharko dio justifikazio-memoria tekniko bat eta bertan haxe jasoko du: ukitutako populazioaren eta horren banaketa-eremu naturalaren inguruko informazioa; horien habitat bereizgarrien deskribapena; kontserbazioarengan edo habitatengan eragin negatiboa duten faktoreen azterketa eta proposamen bat katalogatu beharreko kategoriari buruz, betiere horren mehatxu-egoeraren arabera.

Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordea-Naturzaintzak txosten bat igorri beharko du, gehienez ere, hilabeteko epean.

Ingurumen, Lurralde-plangintza eta Etxebizitza sailburuak erabaki bat hartu beharko du, administrazio-prozeduran zehar igorritako txostenetan oinarrituz, katalogoan sartzeko -babes-kategoriarekin batera- edo espezie katalogoan sartzeko ukatzeko, espezie horrek babes-neurri espezifikorik behar ez duela ondorioztatuko balitz.

**2.- Otsoa mehatxatutako espezieen katalogoan sartzeko eskaera izapidetzeko betebeharra.** Arartekoak beste batzuetan ere adierazi du herri-administrazioek, herritarrekin dituzten harremanetan, administrazio-prozeduran jasotako aurreikuspenak betetzen direla bermatu behar dutela





eta informazio egokia eman administratuei une bakoitzean burututako izapideen inguruan.

Administrazio-prozedura orokorrak zehazten ditu administrazioaren lana antolatu, bideratu eta kontrolatzean kontuan hartu beharreko jarraibideak.

Administrazio-izapideak izateko eta herritarrei erantzun eraginkorra emateko bermeak Espainiako Konstituziotik beretik datoz –103.1. eta 105. artikulua– eta Lisboako Itunak ezarritako Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartako 41. artikuluan ezarritako administrazio ona izateko eskubidearen barruan sartzen dira.

Administrazio ona edukitzeko eskubidearen barruan, aurkezten diren idazkiak jaso izanaren agiria, horien ofiziozko bultzada eta administratuek azaldutako kontuei zentzuzko epean erantzuteko betebeharra aipa genitzake.

Era berean, administrazioaren funtzionamendua arautzen duten beste printzipio batzuk gogorarazi behar dira, besteak beste, anti-formalismoarena, fede onarena eta konfiantza zilegiarena. Printzipio horiek administrazioak dagozkion administrazio-prozeduretan aurkeztutako eskaerak sailkatzea ahalbidetzen dute.

Testuinguru horretan, erakunde honek gogorarazi behar du administrazio publikoek berariazko erantzuna eman behar dietela interesdunek zentzuzko epe baten barruan egiten dituzten eskaera guztiei. Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua (lehenago, Herri-administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua) berariaz jasotzen du herri-administrazio guztiei zuzendutako agindu hori. Prozedurak arautzen dituzten arauk ez badute ezartzen zenbatekoa den gehienezko epea, 39/2015 Legeak (lehen 30/1992 Legeak) ezartzen du epe hori ez dela izango hiru hilabete baino gehiagokoa, eskaera egiten denetik zenbatzen hasita.

Administrazio-isiltasuna herritarrek administrazioaren jarduketarik ezaren aurrean daukaten berme bat da, baina horrek ez du inola ere eragiten ez erantzuteko ahalmena. Herri-administrazioek jardunbide oker hori zuzendu





behar dute, ebazteko denbora igaro arren edo Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren sailetan egondako aldaketak gorabehera.

Administrazio oneko printzipio horiek erreklamazioan azaldutakoa bezalako kasuetan ere aplikatu behar dira; horren bidez, elkarre batek administrazioari eskatzen dio espediente bat hasteko, otsoaren egoera ebaluatzeko eta hori Euskal Autonomia Erkidegoko animalia eta landare basatien mehatxatutako espezieen katalogoan sartzeko.

Ingurumenaren arloan eskudunak diren organoek elkarrearen proposamena kalifikatu eta balioztatzeko egindako kudeaketak gorabehera, lehenengo eskaeratik bi urte baino gehiago igaro dira, eskaera errepikatu egin da, baina ez da berariazko erantzunik eman. Egitate horrekin, ondoriozta daiteke ez direla bete prozedura-legerian aurreikusitako izapideak eta epeak.

Prozedura-legerian jasotako lege-agindu horrekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzaren egungo Ingurumen, Lurralde-plangintza eta Etxebizitza Sailak behar bezala izapidetu behar ditu herritarrek aurkezten dituzten eskaera guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, espedientea behin betiko ebatzi edo amaitu arte.

Kasu honetan, Inguru Naturala Antolatzeko eta Ikertzeko Zuzendaritzari dagokio prozedura hasteko edo ez hasteko ebazpena ematea. Ondare Naturala Antolatzeko Zuzendaritzak espedientea hastea erabakitzeotan, Ingurumen, Lurralde-plangintza eta Etxebizitza sailburua izango da organo eskuduna erabaki bat hartzeko, administrazio-prozeduran zehar igorritako txostenetan oinarrituz, katalogoan sartzeko -babes-kategoriarekin batera- edo espeziea katalogoan sartzeko ukatzeko, espezie horrek babes-neurri espezifikorik behar ez duela ondorioztatuko balitz.

**3.- Otsoaren egungo babes-egoera Euskal Autonomia Erkidegoan.** Otsoak, fauna basatiko espezie gisa, babes-araudi bat dauka bai Estatuko, bai Euskal Autonomia Erkidegoko araudian, Bernako Hitzarmenetik eta Hábitats Zuzendaritza eratorritakoa. Bi tresna juridiko horietan, espezie hori eranskinetan agertzen da babes-araubide orokor batekin; horrek esan nahi du derrigorrezkoa dela espeziearen kontserbazio-egoera egokia mantentzea bere banaketa-eremu naturalean. Otsoa babesteko araudi horrek eta nazioarteko antolamenduan eta autonomia erkidegoko





zuzenbidean jasotako betebeharrak euskal herri-administrazioak lotzen dituzte.

Espainiako Estatuak 1986ko maiatzaren 13an berretsitako (1986ko urriaren 1eko EAO) Europan bitzta basatia kontserbatzeko Hitzarmenak "babestutako" animalia espezie hori kontserbatzeko neurriak xedatzeko betebeharra ezartzen du. Horrez gain, otsoaren populazioa mantendu edo egokitu beharko da bere habitatean espeziearen bideragarritasuna bermatzeko moduko mailan eta iraungitzeko arriskua saihesten duen populazio-maila bermatu beharko da. Europako Kontseiluaren gomendioetan adierazten da beharrezkoa dela kudeaketa-plan bat eratzea, kontserbazio-neurriak ezartzeko eta, aldi berean, otsoak egoteak edo iraungita zegoen guneeetan berreskuratzeak sortutako gizarte-gatazkak ebaztea errazteko. Hala, adierazi beharra dago, otsoaren populazioa nahikoa den guneeetan, otsoaren ehiza-ustiaketa ahalbidetuko dela, justifikatzen bada eta betiere hitzarmenean jasotako proportzionaltasun-aurreikuspenak betetzen badira.

Habitat naturalak eta basa-landaredia eta fauna zaintzeari buruzko Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/CEE Zuzentarauak (Hábitats Zuzentaraua) otsoa "interes komunitarioko" basa-espezietzat hartzen du Duero ibaiaren iparraldean. Horretarako, zaintzeko eta otso iberiarraren populazioaren kontserbazio-egoera egokia berrezartzeko eta mantentzeko neurriak hartzeko betebeharra jasotzen du horren banaketa-eremu naturalean. Zuzentarauak ezartzen du, Kantauriko gune honetan, otsoaren ustiakuntza-neurriek hori hartzea eta ustiatzea ahalbidetzen dutela, hau da, horien ehiza edo harrapaketa baimendua, betiere kudeaketa eta kontserbazio-egoera egokia bateragarriak badira eta, edonola ere, tokiko mailan otsoa desagertzea eragin dezaketen bitarteko ez selektiboak debekatzen badira.

Bestalde, Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 56. artikuluan aurreikusitako babes-araudi berezia duten basa-espezieen zerrendan, otsoa Duero ibaiaren hegoaldeko autonomia erkidego batzuetan soilik agertzen da. Horrek esan nahi du, penintsularen iparraldeko otsoaren populazioaren ehiza-ustiakuntza egin daitekeela, autonomia erkidegoek babes-araudi zabalagoa ezartzea gorabehera, betiere ustiakuntza horrek otsoa tokiko mailan desagertzea eragiten ez badu edo populazioen lasaitasuna larriki kaltetzen ez badu.







Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Naturaren Kontserbazio Legearen testu bategina onartu zuen; hala, dekretu horrek jaso du espezie basati guztien babes orokorra, ehiza-araudian aurreikusitakoa gorabehera. Mehatxatutako espezieen euskal katalogoan sartutako espezieek babes-araudi berezia izango dute eta horrek kudeaketa-plan bat onestea eskatzen du, neurri espezifikoekin, besteak beste, hil edo hartzeko debekua, interes publiko edo sozialeko kausengatik araudian tasatutako salbuespenak izan ezik. Horrez gain, kalte larriak saihestu beharko dira uztetan eta abeltzaintzan, betiere ezarritako neurriek bermatzen badute kontserbazio-egoera egokia horren banaketa-eremuan.

Gaur egun, otsoa ez dago euskal katalogoan sartuta. Horregatik, bai Bizkaiak, bai Arabak, oro har, ehizatzeke debekua arautu dute, otsoen kupo bat hartzeko ez-ohiko uxaldiak burutzeko baimenak ematen direnean izan ezik. Hala, uxaldi horietarako baimena ematen da abereei kalte handirik egitea saihesteko.

Esparru honen barruan atera daitekeen ondorio nagusia da Hábitats Zuzentzarauak betebeharrak bat ezartzen duela euskal agintaritzak eskudunentzat; zehazki, zaintzeko eta neurriak hartzeko betebeharrak dute, otso iberikoaren populazioaren kontserbazio-egoera egokia berrezartzeko eta hori mantentzeko bere banaketa naturaleko eremuan, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan. Egoera egoki hori bermatzeko, dauden habitatak mantendu behar dira; horiek murriztea saihestu eta behar besteko hedadura duen habitata mantendu.

Halaber, adierazi beharra dago, zuzentzarauaren xedapenen ondorio zuzena dela-eta, organo eskudunek otsoak ehizatzea edo hartzea baimen dezaketela, kudeaketa-metodo bezala, betiere bateragarria bada otsoaren kontserbazio-egoera egokiarekin espeziearen banaketa-eremu naturalean. Aldi berean, aipatu behar da zuzentzarauak, babestutako espezieei dagokienez, beren-beregi debekatzen duela 15. Artikuluan tokiko mailan espeziaren desagerpena eragin dezaketen bitarteko ez selektiboak baliatzea, zuzentzarauaren 16. artikuluan jasotako aurreikuspenak justifikatzen badira salbu.





**4.- Otsoaren kontserbazio-egoera Euskal Autonomia Erkidegoan.** Otsoaren izaera ezartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko espezie autoktono gisa, Arabako Lurralde Historikoko otsoa kudeatzeko planak jasotzen duen diagnostikoa aipa daiteke; izan ere, horrek hauxe adierazten zuen:

*"Otsoa aspalditik bizi da euskal lurraldean, baina, batez ere XIX. mendetik aurrera, astiro baina ezinbestean bakandu da. Populazioaren murrizketa hori XIX. mendean islatzen da, populazio egonkorra izateari utzi baitzion. Edonola ere, XIX. mendeko azken hamarkadetatik XX. mendeko erdialdera arte, Araban beti egon izan da otsoa. Eszenatoki hori oso antzekoa izan zen maila iberiarrean. XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan, espeziaren gutxieneko populazioa egon zen.*

*Orduetik, gizarte eta ekonomiako faktoreetako aldaketak, basaungulatuaren populazioen (batez ere basurdeak eta orkatzak) hazkuntzak eta pozoia debekatzeak otsoa apurka-apurka berreskuratzea erraztu zuten. Otsoa penintsulako ipar mendebaldetik ekialdera eta hegoalderahedatzen da. Burgos (Gaztela eta Leon) eta Kantabriako iparraldeko lurraldeetako otsoek, 80ko hamarkadatik aurrera, Arababirkolonizatzeko saiakera handia egin zuten. Oraindik ere horretandihardute. Hori horrela, XX. mendeko azken urteetatik, kanidoa EAEkomendebaldeko mendilerroetan (Balgerri, Gorobel, Gibijo, Arcena...) dagoela egiaztatu da eta probintziako ekialderagoko eremuetan (Gorbeia mendigunean eta Badaia mendilerroan, nagusiki) isolatuago dago".*

Arabako mendebaldean, iparralde iberiarreko populazioko bana -keta ipar ekialdekoena dute otsoek.

Zenbait azterlanek eta erroldak adierazi egin dute populazio murriztu bat dagoela Araban eta Bizkaian, azkenengo urteotan gorabeherak izan dituen.<sup>1</sup> Otsoaren azkenengo erroldak (2014-2015) ondorioztatu zuen otso-talde bakarra existitzen zela, hain zuzen ere, Karrantzan; hala, horren erreproduktzioa baieztatu zen 2014an. Geroago, Eusko Jaurlaritzaren Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Sailak neguko errolda bat kontratatu zuen, zehazki, Karrantzako otso-populazioen errolda egiteko 2016ko otsaila eta martxoa bitartean<sup>2</sup>. Datuek baieztatu zuten Karrantzan

<sup>1</sup> Sáenz de Buruaga, M. (et alia); "Censo de lobo (*Canis lupus*) en la Comunidad Autónoma del País Vasco 2014". Echeagaray, J. (et alia); "El Lobo (*Canis lupus* L., 1758) en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Uso del ADN fecal para el seguimiento de sus poblaciones".

<sup>2</sup> "Karrantza Haranaren inguruan (Bizkaia) otsoen (*canis lupus*) neguko populazioaren diagnostikoa – 2016"



bost otso zeudela; horietatik, hiru Ordunten zeuden eta bi Armañonen. Hala, datu horiek adierazten dute bi otso-talde desberdin zirela.

Aurretik aipatutako txostenetan jaso den bezala, Euskadin, otsoaren populazioa murriztua da; hori-dela eta, zenbait elkartek behin eta berriro eskatu egin dute otsoa babesteko eta, horretarako, otsoa mehatxatutako espezieen euskal katalogoan sartzeko eskatu dute. Otsoa katalogoan sartzearen ondorio nagusia izango litzateke Euskadiko otsoaren populazio-maila kudeatzeko plan bat onetsi beharko litzatekeela.

Otsoa katalogoan sartzeko erabakia aurretik azaldutako prozeduraren arabera aztertu eta balioztatu ostean, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde-politika eta Etxebizitza Sailak, foru-organo eskudunekin koordinatuz, kudeaketa-plan bat onestea adostu beharko luke. Kudeaketa-planak espezie baten kontserbazio-egoera egokia berrezartzera eta mantentzera daude zuzenduta; horretarako, neurriak ezarri beharko lirateke, hain zuzen ere, dauden mehatxuak deuseztatze aldera.

Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-organoari dagokio helburu hori lortzeko garatu beharreko ekintzak eta neurriak ezartzea. Nolanahi ere, gaia aztertu duten nazioarteko eta nazioz gaindiko erakundeek jasotako esperientziak eta jardunbide egokiak hartu beharko dira kontuan.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### Gomendioa

Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde-plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen dio ahalik eta lasterren ebazteko otsoaren populazioa (canis lupus) mehatxatutako espezieen euskal katalogoan sartzeko eskaera; hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko Naturaren Kontserbazio Legearen testu bategina onartu zuen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluan jasotako prozedurarekin bat etorriz.





Erabaki hori hartzeko, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde-plangintza eta Etxebizitza Sailak kontuan hartu beharko ditu Bernako Hitzarmenean eta Hábitats Zuzentarauan jasotako espezie hori babesteko araudia eta horietatik ondorioztatutako zaintza- eta kontrol-betebeharrak. Halaber, espezie honen egungo kontserbazio-egoera hartu beharko du kontuan, bai bere banaketa naturaleko eremuan, bai tokiko mailan Euskal Autonomia Erkidegoan.

